


II. MUNDU GERRAREN BUKAERAREN 70. URTEURRENA



COMÈTE

IHESBIDE SAREA
LA RED DE EVASIÓN

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

San Telmo Museoa

2015-03-17

2015-05-31

70 ANIVERSARIO DEL FINAL DE LA II GUERRA MUNDIAL

NAZIEN PRESENTZIA BIDASOAN

NAZIS EN EL BIDASOA

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Casa de la Paz y los Derechos Humanos

Aiete Kultur Etxea

2015-03-27

2015-06-07



Antolatzailea/Organizazioa



donostiakultura.com



Donostia / San Sebastián
Giza Eskubideak
Derechos Humanos

Donostia / San Sebastián
Giza Eskubideak
Derechos Humanos



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPEAN CULTURE HERITAGE
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA

Ekizteak/Producers



Laguntzaileak/Colaboran



Das
Bundesarchiv

San Telmo Museoa “Comète. Ihesbide sarea” erakusketa aurkezten du

San Telmo Museoa, Bakearen Etxeak eta DSS2016k antolatu eta Morgancrea estudioak ekoiztutako ikusentzunezko erakusketa honen protagonista ‘Comète’ sare klandestino da. Bizirik dirautenei eta senideei eginiko 30 elkarrizketa eskusibo eta dokumentazio berria biltzen ditu. Elkarte zibil honek, II. Mundu Gerran, gatazka gunetik 800 iheslari inguru -horietako gehienak hegazkinlariak- ateratzea lortu zuen. Bidaia Bruselan hasi eta hainbat hiri -hala nola Paris, Baiona edo Donostia- zeharkatu ondoren Gibraltarren amaitzen zen.

San Telmo Museoa “Comète. Ihesbide sarea” erakusketa aurkezten du. Ikus-entzunezko proiektu interaktibo honek, II. Mundu Gerraren amaieraren 70. urteurrenarekin batera, Comète sarean parte hartu zuten herritarrak, bizirik dirautenak eta familiarakoak, gogora ekartzea du helburu. Laborategi Aretoan ezkutuko sare honi buruzko 30 elkarrizketa eta dokumentazio berria ikusi ahalko da, martxoaren 17tik, maiatzaren 31 arte, doako sarrerarekin.

Comète sarea Bruselan sortu zen 1940 urte amaieran. Erresistentziarako erakunde zibil franko-belgikarra izan zen, eta helburua II. Mundu Gerran naziak atzetik zituzten soldadu aliatuak gatazka eremutik ateratzea zen. Iheslariak Gibraltarrera salbu eramatea zuten xede, enbaxaden eta estatuko zerbitzu aliatuen laguntzarekin. Europa okupatua zeharkatu eta gero, **Euskal Herria** zen igarobide, **Bidasoatik** nagusiki. Bidaiko puntu erabakigarri honetan euskal talde batek, mugaren bi aldetan, era aktiboan parte hartu zuten.

1941 eta 1944. urteen artean, Comète erakundeak 800 iheslari inguru atzerriratu zituen. Bestalde, 3.000 pertsona anonimok parte hartu zuten sare honetan (1.700 agente eta kolaboratzaile) eta, horietatik, 700 inguru atxilotu zituzten eta 290 bat fusilatu edo deportazioan hil ziren.

Erakusketa **8 eremu** edo geltokitan dago banatuta eta geltoki bakoitza bat dator lehenago aipatu ditugun Europako mapan kokatutako puntuekin: Londres-Brusela-Paris-Bordele-Dax-Baiona-Bidasoa-Pirinioak-Gipuzkoa-Gibraltar. Guztira 32 monitore eta tablet dira, garaiko testigantzekin eta irudiekin friso argitsu bat osatuz.

Herritar erakundeen zeregina

Comète sarearen sortzaileari, “Dédée-ri”, galdetzen ziotenean: “zergatik egin hori guztia?”, erantzuna beti bera zen: “egin behar zelako”. *Comète* gizarte zibilak gatazka garaian sozializatzeko eta ekintzak egiteko duen gaitasunaren eredia da, abertzaletasuna eta sinesmenak alde batera utzita. Sare klandestinoa era naturalean jaio zen eta herriz herri hedatu zen, hilabete gutxitan milaka lagun mobilizatu. Sarean parte hartzen zutenak egoera zailean bizi ziren, normalean ez zuten izaten sei hilabete baino gehiago aktibo egoteko aukera atxilotu edota, kasu askotan, kontzentrazio-esparru batera eramaten baitzituzten.

Historiarekiko eta gizakiarekiko ardura erakustez gain, eta sufritu zutena kontuan hartuta, *Comète* sareak kode etikoa osorik mantendu zuen, honako lelopean: “**Pugna Quin Percitas**”, hau da, bortizkeriarik gabeko erresistentzia gauzatzea, inteligentzia trebatuz. Ikus-entzunezko instalazio honetan ikusi eta entzun daitezkeen testigantza guztiek gizakiak zailtasuna gainditzeko duen gaitasuna dute ardatz. Hiritarrek sortutako abileziez beteriko gidaliburu honi esker, erregimen naziaren Gestapo polizia beldurgarria estatusunean jartzeko gai izan ziren.

Euskal boluntarioen zeregina

Muga pasatzea, Bidasoa edo Pirinioak zeharkatzea, Bruselan hasten zen periplo luze eta arriskutsu baten amaiera besterik ez zen. Periplo horretan Paris, Bordele, Dax, Baiona eta beste hiri batzuk igarotzen ziren Angelura edo Ziburura iritsi arte, Gipuzkoara edo Nafarroara pasa baino lehen. Azken ibilbide honetan, Espainiako gerra zibileko euskal erbesteratuek paper oso garrantzitsua izan zuten.

Euskal erbesteratu eta mugalariak Donibane Lohitzune inguruan bizi ziren gehienbat eta sarean egiten zituzten lanak kontrabandoarekin edo beste behar batzuekin partekatzen zituzten. Mugalari asko aritu ziren *Comètekin* lanean garai ezberdinetan (Hernanikoak, Zestoakoak, Orexakoak...) eta hauetako bat da **Florentino Goikoetxea** hernaniarra; *Comète* sareko mugalari nagusia dudarik gabe. Ziburun **Kattalin Agirre**ren laguntza estua zuten; Kattalinek etxean gordetzen zituen hegazkinlariak, eta handik abiatuta, Florentino eta beste mugalariak mugaren beste aldera gidatzen zituzten iheslariak. Behin muga igaro ondoren, hegazkinlariak Oiartzunen atsedean hartzen zuten (Sarobe baserrian edo Arbide-Garayar familiaren ostatuan) edo Donostian **Bernardo Aracamaren** etxean. Bernardok kontsulatuarekin lotura lanak ere egiten zituen.

Erakusketa honetaz gain, hilaren amaieran **Aieten “Nazien presentzia Bidasoan”** izenburuko argazki erakusketa jarriko dute ikusgai, proiektu beraren baitan. Argazki erakusketa honek Bigarren Mundu gerran naziek Bidasoaren bi bazterretan izandako egonaldiak eta jarduerak ikustarazten ditu: eguneroko bizitza, agintari frankistekin izandako adiskidetasun harremanak edo euskal kostaldea aliatuen balizko lehorreratzetik babesteko gotortze lanak.

JARDUERAK


Erakusketarekin batera hainbat jarduera burutuko dira hilabete hauetan: bisitak, proiektzioak eta solasaldiak.

Hilabetean behin hitzaldia eskainiko da San Telmo Museoko areto nagusian. Lehena bihar izango da, martxoak 17, erakusketaren zuzendariak, Carlos Rodriguezek, J. C. Jimenez de Aberasturi historialariak, Martine Le Grellak eta Joxean Goikoetxeak emango dute, 19.00tan. Hurrengo solasaldiak apirilaren 15ean eta maiatzaren 12an izango dira.

Filmak maiatzean proiektatuko dira, larunbatero, museoko areto nagusian, 19.00tan. Truebako aretoetan ere, aukera egongo da erakusketarekin lotuta dagoen pelikula bat ikusteko apirilaren 13an, Cineforum zikloaren barne.

Aieteko argazki erakusketan ere proiektzioak egingo dira (euskaraz eta gazteleraz), gainera bisita gidatuak ere izango dira erakusketaren komisariarekin, J. C. Jiménez de Aberasturirekin, apirilaren 14an eta 28an.

II. MUNDU GERRAREN BUKAERAREN 70. URTEURRENA



COMÈTE

IHESBIDE SAREA
LA RED DE EVASIÓN

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

San Telmo Museoa

2015-03-17

2015-05-31

70 ANIVERSARIO DEL FINAL DE LA II GUERRA MUNDIAL

NAZIEN PRESENTZIA BIDASOAN

NAZIS EN EL BIDASOA

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

Bakearen eta Giza Eskubideen Etxea
Casa de la Paz y los Derechos Humanos

Aiete Kultur Etxea

2015-03-27

2015-06-07



El Museo San Telmo presenta “Comète. La red de evasión”

La red clandestina ‘Comète’ es la protagonista de esta exposición audiovisual organizada por San Telmo Museoa, La Casa de la Paz y DSS2016 y producida por Morgancrea, que presenta un total de 30 entrevistas exclusivas a supervivientes y familiares, así como documentación inédita. Esta organización civil logró, durante la Segunda Guerra Mundial, evacuar a 800 fugitivos, en su mayoría aviadores aliados, a través del río Bidasoa. La ruta del periplo comenzaba en Bruselas y, tras cruzar ciudades como París, Bayona o Donostia, finalizaba en Gibraltar.

San Telmo Museoa presenta “Comète. La red de evasión”, un proyecto audiovisual e interactivo que, coincidiendo con el 70 aniversario del fin de la II Guerra Mundial, busca rendir homenaje a todos los que integraron esta organización civil, así como a supervivientes y familiares. Un total de 30 entrevistas exclusivas y documentación inédita conforman esta muestra que se podrá visitar desde mañana, 17 de marzo, hasta el 31 de mayo en la Sala Laboratorio del museo, con entrada gratuita.

La red Comète fue una organización civil de resistencia franco-belga que nació en Bruselas en 1940 con el fin de evacuar, principalmente, a los combatientes aliados perseguidos por los nazis durante la II Guerra Mundial. El objetivo era poner a salvo a los fugitivos conduciéndolos, con la ayuda de las embajadas y servicios aliados en el Estado español, hasta Gibraltar. **La meta**, tras atravesar la Europa ocupada, **era el País Vasco**, lugar elegido para el paso, generalmente **a través del Bidasoa**. En esta etapa crucial del viaje un grupo de vascos, de ambos lados de la frontera, colaboraron activamente.

Se estima que entre 1941 y 1944 Comète logró repatriar a cerca de 800 fugitivos, en su mayoría aviadores aliados. La red contó con unas 3.000 personas anónimas (1.700 agentes y colaboradores), de las cuales cerca de 700 fueron detenidas y unas 290 fusiladas o muertas en deportación.

La exposición se divide en **ocho ámbitos** o estaciones que corresponden al recorrido del mapa europeo realizado por la red clandestina: Londres-Bruselas-París-Burdeos-Dax-Baiona-Bidasoa-Pirineos-Gipuzkoa-Gibraltar. La muestra cuenta con cerca de 32 monitores y tablets, con testimonios e imágenes de la época, que configuran un friso luminoso en forma de una estela.

El papel de la sociedad civil en conflictos de guerra

Cuando le preguntaban a "Dédée", fundadora de 'Comète': "¿por qué hacía todo esto?", la respuesta siempre era la misma: "porque había que hacerlo". 'Comète' es un ejemplo de la capacidad de la sociedad civil para solidarizarse y actuar en tiempos de conflicto, por encima de credos y nacionalidades. Esta red clandestina nació espontáneamente y se expandió a través de varios países en tan solo unos meses hasta lograr movilizar a miles de voluntarios, a pesar de que vivían en la cuerda floja y su período de actividad no solía superar los 6 meses hasta ser detenidos y, en muchos casos, deportados a campos de concentración.

Además de un sentido de la responsabilidad con la humanidad y la historia, y a pesar del sufrimiento padecido, Comète mantuvo intacto un código ético que se resume en el lema: "Pugna Quin Percutias", es decir, ejercer la resistencia desde la no violencia, con la única arma de la inteligencia. Todos los testimonios que se pueden ver y escuchar en esta instalación audiovisual son un canto a la inteligencia humana para sortear dificultades, un manual de astucia improvisado por ciudadanos que pusieron en jaque a la Gestapo, la temida policía secreta del régimen nazi.

El voluntariado vasco

El largo y peligroso periplo en tren, a pie cruzando montañas e incluso en bicicleta, comenzaba en Bruselas y atravesaba ciudades como París, Burdeos, Dax o Bayona hasta recalar en Anglet o en Ziburu antes del paso de la frontera hacia Gipuzkoa o Nafarroa. En este trayecto final, los exiliados vascos de la guerra civil española tuvieron un papel muy importante.

Los exiliados y *mugalaris* vascos vivían en su gran mayoría en los alrededores de San Juan de Luz y combinaban su trabajo en la Red con el contrabando u otros quehaceres. Hubo muchos mugalaris trabajando para Comète en diferentes épocas (de Hernani, Zestoa, Oresa...) como el hernaniarra **Florentino Goikoetxea**, el *mugalaris* por excelencia de la Red Comète. Desde Ziburu y en estrecha colaboración con **Kattalin Aguirre**, que alojaba a los aviadores en su casa, Florentino y otros *mugalaris* guiaban a los evadidos hasta el otro lado de la frontera. Una vez cruzada la frontera franco-española, los aviadores podían descansar en Oiartzun (en el caserío Sarobe o en la fonda de la familia Arbide-Garayar) o en Donostia, en casa de **Bernardo Aracama**, quien además hacía de enlace con los consulados.

Dentro del mismo proyecto, a finales de marzo se presentará en **Aiete la exposición fotográfica "Nazis en el Bidasoa"**. La exposición fotográfica retrata la presencia y actividad de los nazis a ambos lados del Bidasoa durante la Segunda Guerra Mundial: la vida cotidiana del ejército invasor, su confraternización con las autoridades franquistas o las labores de fortificación de la costa vasca ante un eventual desembarco aliado.

ACTIVIDADES

Durante estos meses se desarrollarán además diversas actividades en paralelo con la exposición como charlas, conferencias y proyecciones de cine.

Una vez al mes se ofrecerá un coloquio en el salón de actos el Museo San Telmo. El primero se realiza mañana, 17 de marzo, de la mano del director de la muestra, Carlos Rodríguez, el historiador J. C. Jiménez de Aberásturi, Martine Le Grella y Joxean Goikoetxea, a las 19.00. Las próximas charlas tendrán lugar el 15 de abril y el 12 de mayo.

Los largometrajes se podrán ver los sábados de mayo en el salón de actos del museo, a las 19.00. También habrá ocasión de asistir a una de las proyecciones en los Cines Trueba el 13 de abril, dentro de ciclo Cineforum.

También se realizarán proyecciones en la exposición fotográfica de Aiete (en euskara y castellano), además de visitas guiadas con el comisario de la exposición J. C. Jiménez de Aberasturi, el 14 y 28 de abril.